

STM

San Telmo Museoa

POSTIGO

Garai baten kronika

Crónica de una época



1979.09.01 ▶ Isilukak Donostian Itxiki Quijeren heriotzarengatik
Incidentes en San Sebastián por la muerte de Itxiki Quijere

Fernando Postigo Argazki Bilduma
Fondo Fotográfico Fernando Postigo

Erakusketa / Exposición
2020.07.30-2020.11.01

San Telmo Museoa

ANTOLATZAILEAK / ORGANIZAN

STM
San Telmo Museoa

444
DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

DX
donostia
kultura

COMO
COMUNICACIÓN
Y COOPERACIÓN SOCIAL

Itxiki
Fernando Postigo
Argazki Bilduma
Donostia

CRONIKAK
KULTURA

eitb

kutxa

EL DIARIO VASCO

INTRODUKO IRABAZLEAK / INTRODUCTORES PRIVADOS

San Telmo Museoa
Zuloaga Plaza, 1
20003 Donostia/San Sebastián
www.santelmomuseoa.eus
[@santelmomuseoa](https://twitter.com/santelmomuseoa)
[#STMfernandopostigo](https://twitter.com/STMfernandopostigo)

SAN TELMO MUSEOA

Zuloaga plaza, 1 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 580 E. santelmo@donostia.eus
www.santelmomuseoa.eus



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**



**donostia
kultura**

San Telmo Museoak *Postigo*. *Garai baten kronika* erakusketa aurkezten du, fotokazetari donostiarraren 1977 eta 2001 urteen arteko lanaren hautaketa

Erakusketak, Elisa Querejeta Casares komisario duena, hainbat hamarkadatan zeharreko ibilbidea egiten du Fernando Postigok La Voz de España eta El Diario Vasco egunkarietarako egindako argazkien bidez.

San Telmo Museoko Laborategian 2020ko uztailaren 30etik azaroaren 1era doan bisitatu ahal izango den erakusketa honen jatorria Fernando Postigo Argazki Bilduma da, egileak 2016an museoari dohaintzan eman ziona.

Bilduma zuri-beltzean eta koloretan egindako 55.000 irudi inguruk osatzen dute, 1977 eta 2003 urteen artean fotokazetari gisa egindako lanaren emaitza, lehenik La Voz de Españan eta, denbora gehienez, El Diario Vasco egunkarian. Ondo islatzen du trantsizio garaiko urteak nahasiak izan zirela, batez ere esparru sozial eta politikoa, manifestazio, greba, istilu, atentatu eta abarren irudi ugariarekin. Hala ere, kulturak, kirolak edo eguneroko bizitzak ere badu protagonismoa Postigoren lanean. Argazki gehienak Donostian eta Gipuzkoan daude eginak, nahiz eta erretratatuak gertaera batzuen garrantzi historikoa dela eta, irudiek muga horiek gainditzen dituzten. Horrela, Fernando Postigo bilduma tresna baliotsua da euskal gizarteak trantsiziotik XXI. mendearen lehen urteetaraino izandako aldaketak ezagutzeko.

Erakusketarako, Elisa Querejeta Casares komisarioak, Fernando Postigok berak lagunduta, 240 bat irudi aukeratu ditu, 1977tik 2001era bitarteko urteetakoak, Postigok hainbat gairi buruz egindako erreportajeetan oinarrituta, neurri handi batean. Asko dira fotokazetariaren irudietan hamarkada hauetan agertzen diren gaiak, eta erakusketan irudi hauen aukeraketa bat azaltzen da positibatuta. Kronologiak erakusten du indarkeriarekin eta politikarekin lotutako gaiak gero eta pisu gutxiago dutela, eta kulturak eta harekin lotutako pertsonaiek leku gehiago hartzen dutela. Era berean, 90eko hamarkadan irudiek zuri-beltza atzean utzi zuten kolorea gehitzeko, azken urteetan zuri-beltza desagertu zen arte.

Azkenik, erakusketak atal pertsonalago bat du. Bertan, Fernando Postigok bere bildumako 40 diapositiba inguru aukeratu ditu, batez ere urteen poderioz aldatzen joan diren hiriko paisaiak eta txokoak biltzen dituztenak. Argazkilariak askatasun eta lirismo handiagoz hartu ditu irudiak.

Erakusketak bi bideo ere baditu; batean, argazkilariak bere ibilbideaz, hiriaz, urte hauetako bizipenez eta abarrez hitz egiten du, eta bigarren bideoak lan egiteko moduez, erabili dituen ekipo eta teknikez hitz egiten du, eta bilduma osatzen duten beste lan material mota batzuk ere ikus daitezke.

Jarduerak: Zeharkako begiradak

Irailan eta urrian bisita gidatuak antolatu dira. Hainbat protagonistek erakusketa honen inguruko begirada berezia eskainiko dute bisita berezi hauetan. Guztiak ostegunetan izango dira, 18:00etan hasiko dira eta doan izango dira, aurrez izena emanda.

Irailak 3, Fernando Postigo. Gaztelaniaz.

Irailak 10, Arantxa Urretabizkaia. Euskara.

Irailak 17, Nerea Azurmendi. Euskara.

Urriak 1, Elisa Querejeta Casares. Gaztelaniaz.

Urriak 8, Aizpea Goenaga. Euskara.

Izen-emateak:

stm_erreserbak@donostia.eus, 943 481 561 (astelehenetik ostiralera: 12: 00-14: 00)

Katalogoa

Erakusketaren harira, museoak katalogo bat argitaratu du, museoaren bilduma-lerroaren parte dena, eta bertan Fernando Postigo, Elisa Querejeta, Miguel Larrea, Jessica Postigo, Felipe Juaristi eta Jesus Uriarteren testuak daude.



Elisa Querejeta Casares



Elisa Querejeta Historia irakaslea da Bigarren Hezkuntzako institutu batean. San TelmoMuseoan maiz lan egiten du argazkigintzako dokumentalista gisa, eta hainbat argazki erakusketa komisariatu ditu, hala nola Gipuzkoa Argitara (STM, Donostia, 2017) eta Francisco Elosegui (Photomuseum, Zarautz, 2018). Aranzadi Zientzia Elkarteko kide aktiboa da, eta Memoria Historikoari eta argazkigintzari buruzko lanak egin ditu.

El Museo San Telmo presenta la exposición *Postigo. Crónica de una época*, una selección del trabajo del fotoperiodista donostiarra Fernando Postigo entre 1977 y 2001

Elisa Querejeta Casares es la comisaria de esta muestra que recorre varias décadas a través de las fotografías hechas por Fernando Postigo para los rotativos La Voz de España y El Diario Vasco.

El origen de esta exposición que se podrá visitar gratuitamente en el Laboratorio del Museo San Telmo del 30 de julio al 1 de noviembre de 2020 es el Fondo Fotográfico Fernando Postigo, donado por su autor al museo en 2016.

El fondo se compone de unas 55.000 imágenes en blanco y negro y en color, fruto de su trabajo como fotoperiodista entre los años 1977 y 2003, primero en La Voz de España y, la mayor parte del tiempo, en El Diario Vasco. Refleja fielmente lo convulso de los años de la Transición, sobre todo en el ámbito social y político, con numerosas imágenes de manifestaciones, huelgas, disturbios, atentados... Sin embargo, la cultura, el deporte o la vida cotidiana también tienen su protagonismo en el trabajo de Postigo. La mayoría de las fotografías se localizan en San Sebastián y Gipuzkoa, aunque la relevancia histórica de algunos de los acontecimientos retratados hace que las imágenes trasciendan esos límites. Así, el fondo Fernando Postigo se revela como una valiosa herramienta para conocer los cambios vividos por la sociedad vasca entre los primeros años de la Transición y la entrada en el siglo XXI.

Para la exposición, su comisaria, Elisa Querejeta Casares, con la colaboración del propio Fernando Postigo, ha hecho una selección de unas 240 imágenes que recorre los años que van desde 1977 hasta 2001, basándose en gran medida en los reportajes realizados por Postigo sobre diversas temáticas. Son muchos los temas que el fotoperiodista ha cubierto a lo largo de estas décadas y se muestra la selección de fotografías que se han positivado para la exposición a partir de sus negativos. La cronología muestra una progresiva pérdida de peso de los temas relacionados con la violencia y políticos, para ir dejando más espacio a la cultura y a personajes relacionados con ella. Asimismo, se aprecia que en la década de los 90 las imágenes dejan atrás el blanco y negro para incorporar el color hasta que desaparece el B/N en los últimos años.

Finalmente, la exposición incluye un apartado más personal, en el que Fernando Postigo ha realizado una selección de unas 40 diapositivas de su propia colección que principalmente recogen paisajes y rincones de la ciudad que han ido cambiando con el paso de los años y en las que el fotógrafo ha captado las imágenes con mayor libertad y lirismo.

La exposición incluye también dos vídeos; en uno de ellos, el fotógrafo habla sobre su trayectoria, la ciudad, las vivencias de todos estos años, etc. El segundo vídeo trata la forma de trabajar, los equipos y técnicas que ha ido utilizando, y muestra también otro tipo de materiales de trabajo que forman parte del fondo.

Actividades: En primera persona

En septiembre y octubre se han programado visitas guiadas. Diferentes protagonistas ofrecerán en estas visitas especiales su particular mirada sobre esta exposición. Todas serán en jueves, comenzarán a las 18:00 y serán gratuitas, con inscripción previa hasta completar aforo.

3 de septiembre, Fernando Postigo. Castellano.

10 de septiembre, Arantxa Urretabizkaia. Euskara.

17 de septiembre, Nerea Azurmendi. Euskara.

1 de octubre, Elisa Querejeta Casares. Castellano.

8 de octubre, Aizpea Goenaga. Euskara.

Inscripciones:

stm_erreserbak@donostia.eus, 943 481 561 (lunes a viernes: 12:00-14:00)

Catálogo

Con motivo de la exposición el museo ha editado un catálogo que forma parte de la línea de colecciones del museo, en el que se incluyen textos de Fernando Postigo, Elisa Querejeta, Miguel Larrea, Jessica Postigo, Felipe Juaristi y Jesús Uriarte.



23 x 27 cm.

243 págs.

20 euros

Elisa Querejeta es profesora de Historia en un Instituto de Secundaria. Trabaja asiduamente como documentalista de fotografía para San TelmoMuseoa, y ha comisariado varias exposiciones de fotografía como Gipuzkoa Argitara (STM, Donostia, 2017) y Francisco Elósegui (Photomuseum, Zarautz, 2018). Miembro activo de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, donde ha realizado trabajos sobre Memoria Histórica y fotografía.